



Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa

Kale-eszenografiak

Azken asteotako kale-irteerak ezberdinak dira. Ezberdintasunez aritzeko, saia gaitzen normaltasunaren barometroaren epaia albo batera uzten, esperientzian bertan sakontzeko. Klean ezberdin ibitzen ari gara, etxealdiak gure gorputzean eragindakoagatik akaso, kaleari zentzu ezberdina eman diogulako. Bizi dugun egoerak espazio publikoen birformulaketa bat ekarri du, ez soilik oinezkoek ibilgailu pribatuaren aurrean irabazi (berreskuratu) beharreko espazioan, baita kalea erabiltzeko eta ibiltzeko modu eta formetan ere. Ohitura bilakatuta genuen “kalera joatea” funtzio konkretu bat egiteko; erosketak, kiroldegira joatea, paseo bat ematea, terraza batera joatea, norbaiten etxera joatea. “Kalera ateratzearen” akzio fisikoa eginkizunen agendan atrapatuta genuen: puntu ezberdinen arteko konektore huts bihurtuta, trantsiziozko espazio eta denbora, entitate propiorik gabe. Etxealdiak, egunerokoaren erritmoa esplotatzea-rekin batera, kaleen edukia aldarazi du, funtzioan zein performatibitatean.

«Paseoak» estatus berri bat irabazi duen garaio-tan, paseoa egunero egitera ohitu gara, ez soilik igandeetako erromeria bezala ulertuta. Paseatu dugu ez bakarrik pasealekuetatik, baita kaleetatik ere, errutinetatik atera gaituzten ibilbideak egitera animatu gara, ibiltzearen deskubrimenduan. “Paseo” hitza bera zabaldu egin dugu. Baina nago ofizialki “paseoa” hobetsi dela “ibiltzearen” aurrean, oraindik ere lengoia ez delako iraganeko funtzionaltasun eta zereginaren esleitze beharretik askatu. Ze irudipena dut, paseoan baino ibilian ari garela, kaleak ibiltze hutsaren plazeragatik zeharkatzen dituzten gorputzez bete

direla, gorputzaren mugimenduekin konektatuz eta pausu bakoitza kaleek duten komunitate-sinbologiarekin elikatuz. Ibiltzea ekintza sinplea da, produktibitatearen parametroetatik eskapatzen dena, norberak zentzuz betetzeko aukerari irekita dagoen hitza, norberaren mugimendu erritmikoak deskribatzen dituen, eta, batik bat, bestelako bizi-taupadekin lotzen gaituen. Hain justuan etxealdiak ekarri digun mezueta bat...

Kaleen voyeur izan naiz nahi gabe. Txundigarria suertatu zait gorputzen gelditasuna klean experimentatzea, hain ginen ohituak kalea bizkortasunarekin harremantzeko, zutik egotearen gorputz-presentziak, besterik gabe egonean, mugimendurik gabe, kale-eszenografia ezberdin bat irudikatu duela, patxada islatzen duen eszena bat. Klean okupazio-forma ezberdinak ageri dira horregatik egunotan; adibidez, arrandegiko ilarak okindegikoarekin bat

egiten duenean, kalea gorputz ilara jarraitu batekin marraztuta ageri denean, lagunarteko korroak borobil zabal bat marrazten duenean. Terrazek kaleen erabilera eta kalearen esperientzia zenbat eraldatu duten hain da orain nabarmena... Terrazek espazioa antolatzen dutelako: ez dute abagunerik uzten “klean egoteko” beste moduak deskubritzeko. Horregatik harridura sortzen du egunotan espazio publikoetako petril eta zoruak eserleku edo jolasleku bilakatzeak. Kalea gorputzentzako aukeraleku gisa ulertzen ari gara, eta horrekin kale-eszena aldakorak eta askotarikoak sortzen dira, espontaneotasunak eta istantean kalea konpartitzen duten gorputzen presentziak irudikaturikoak. •



Ilustratzailea: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA